



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2021EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Joan den azaroaren 6an Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021eko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; txosten hori osatzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFÉ) eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten 20 erakundeen kontuek.

Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du **Kontuei** buruz, salbu eta 2021eko abenduaren 31n sortu eta erregistratu gabeko EAeko Administrazio Orokorraren transferentziek eragindako salbuespena izan ezik. Transferentzia horien ondorioz, atxikitako diruzaintza garbi likidoaren geldikina, erabilgarri dagoen diruzaintza garbi likidoaren geldikina eta BFaren funts propioak 14,4, 102,3 eta 116,7 milioi euroan handitu behar dira, hurrenez hurren.

2021eko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du zuzena dela BFaren egoera. Doitutako aurrekontuaren emaitza positiboa da 238 milioi euroan, eta horrek aurreko ekitaldiaren aldean 157,1 milioi euroren igoera izan dela erakusten du. BFaren zorpetzeak 254,6 milioi euro egin du gora, 2020ko datuekin alderatuta.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun- eta finantzaren iraunkortasun-helburuei** buruzko iritzia eman du. Ministroen Kontseiluak 2020ko urriaren 6an arau fiskalak eten zituen 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zien BFAk.

Bai BFAk bai gainerako erakundeek **zuzentasunez bete dute beren ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege-araudia**, nahiz akats puntualak aurkitu diren **langileen arloan** (sozietate batek bi lan kontratu mugagabe bihurtu ditu, enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak urratuz) eta **administrazio-kontratazioaren arloan** (kontratu bat larrialdi-prozedura bidez dagokion hasiera-agindurik gabe gauzatzea; eskumena ez duen organo batek kontratu bat esleitzea;



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

larrialdiko kontratu bat justifikazio arrazoiturik gabe luzatzea; hainbat zerbitzu publikotasun- edo lehia-printzipioak errespetatu gabe kontratatzea; zerbitzu-kontratu batzuek eta esparru-akordio batek ezarritako epeaz gaindi irautea).